

# ARAUDIA

## **ERETZAKO II. IGOERA**

1.- Lasterketa 2009ko abuztuaren 9an izango da, goizeko 11:00etan. Irteera zein helmuga Sodupeko Herriko plazan izango dira. Lasterketa popularra izango da, eta Atletismoko Bizkaiko Federazioan egongo da erregistratuta. Antolatzaileak honako hauek dira: **Sodupeko OSTRUKA KORRIKALARIAK taldea, GALLARRAGA mendi taldea** eta **Sodupeko Jai batzordea**. Halaber, Gueñesko Udalaren babesari izango du proba, betiere ARAUDI honetan zehaztutakoari jarraiki.

2.- 14,400 km-ko lasterketa izango da. Lehenengo eta azken kilometroa asfaltotik egin beharko dira; gainontzeko guztiak, ordea, pistatik edo mendietatik.

3.- KATEGORIAK: Parte hartu nahi duen orok egin ahal izango du, betiere 18 urtetik gorakoa izanez gero. Bi kategoria izango dira:

- Emakumezko SENIORRA: 18-39 urte bitartean.
- Gizonezko SENIORRA: 18-44 urte bitartean.
- Emakumezko BETERANOAK: 40 urtetik aurrera.
- Gizonezko BETERANOAK: 45 urtetik aurrera.

4.- IZEN-EMATEA: Lasterketan izena emateko korreo elektronikoko bat bidali beharko da hurrengo helbidera: [ostruka.sodupe@gmail.com](mailto:ostruka.sodupe@gmail.com). Korreo horretan hurrengo datuak zehaztu beharko dira: izen-deiturak, jaiotze data eta herria.

5.- Abuztuaren 3a baino lehen **10 €** ordaindu beharko da izena ematean. Lasterketariak ez dira onartuak izango harik eta aipatutako diru-kopurua BBK-ko hurrengo kontu zenbakian sartu arte: **2095/0067/20/91-0643807-3**. Horretako, izena eta lehenengo abizen biak zehaztu beharko dira.

Eta erantzukizun zibileko aseguruia zein istripu-aseguruia izango dute lasterketari guztiek.

6.- SEINALEZTAPENAK ETA KONTROLAK: Ibilbidea markatzeko, plastikozko kolore biziko zinta bat erabiliko da, eta beharrezkoa izango da kontrol-gune guztietatik igarotzea. Hainbat kontrol-gunetan, kilometroen erreferentzia zehaztuko da.

7.- JAN-EDAN POSTUAK: Hainbat postu egongo dira ibilbidean zehar jan eta edan ahal izateko, bai eta helmugan ere.

8.- SARIAK:

Sailkapen orokorreko lehenengo hamar/10/ korrikalariak saria jasoko dute, bai gizonezkoen kategorian, bai emakumezkoengan.

Kategoria bakoitzeko lehenengo hiru /3/ sailkatuek garaikurra ere izango dute.

Herriko lehengoak ere garaikurra jasoko dute (emakumezkoak eta gizonezkoak).

Parte hartzen duen orok kamiseta bat jasoko du oroigarri bezala.

9.- Araudi hau errespetatzen ez dutenak deskalifikatuak izango dira. Halaber, deskalifikatu egingo dira ibilbidea osatzen ez dutenak, dortsala begi-bistan eramaten ez dutenak edo antolatzaileen oharrak aintzat hartzen ez dituztenak.

10.- Antolatzaileek aldaketak egin ahal izango dituzte, beharrezkoa izanez gero. Eta lasterketa bertan behera utzi ahal izango dute eguraldia oso txarra bada edo ezinbesteko arrazoiak izanez gero.

11.- Parte-hartzaileen ardura izango dira istripuaren zein axolagabekeriaren ondoriozko gertaerak, bai eta zerbait galtzen badute ere. Parte-hartzaileek onartzen dute antolatzaileek ez dutela izango inolako ardurarik istripua edo lesioa gertatuz gero. Araudi honek jasotzen ez dituen zehaztasunetarako, Atletismoko Bizkaiko Federazioko araudiari jarraikiko zaio.

12.- Aldagelak eta dutxak egongo dira parte-hartzaile guztientzat.